

Kanalak

Gure proiektuaren publizitatea, distribuizioa eta bezeroekin harremanak gauzatzeko hainbat kanal erabiliko ditugu:

Gaur egun, gure erosle edo bezeroekin berezko kanala erabiltzen dugu, ahoz aho harremanetan jartzen gara, hau da, gure zerbitzu eta produktua saltzeko guk bilatu behar ditugu gure klienteak eta haiei aurkeztu behar diegu gure ideiak.

Kanal honetan distribuizioa web orrialdearen bitartez izango da eta guk geuk egingo dugu bidalketa.

Etorkizunean, interneten publizitatuko gara eta klienteekin kontaktuan jartzeko sare sozialen bitartez eta web orrian txertatutako bezeroarekiko atentzio baten bitartez komunikatuko gara.

Azkenik, gure produktua erosleari iristarazteko bi alternatiba ditugu:

- Zuzenean sargardotegiei entregatzea
- Sagardotegien elkarteei saltzea

